

## Prentsarik gabeko liburutegiak

NAIARA ELOLA. IRUÑEA.

Bi aste daramatzate Iruñeko udal liburutegietako erabiltzaileek eguneroko prentsa irakurtzeko aukerarik gabe. Bi aste baita ere, udal liburutegietako langileek liburutegirako prentsa erosi gabe. Martxoaren 25az geroztik, ez dago eguneroko prentsarik Iruñeko zortzi udal liburutegietan. Kazetak ez erosteko erabakia Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak hartu zuten, batzar batean. Izan ere, Paz Prieto Iruñeko Kultura zinegotziak zortzi liburutegietan lau egunkari soilik erosi behar zirela erabaki zuen, arrazoi ekonomikoak argudiatuz. Lau egunkari horiek Nafarroan argitaldi handiena duten bi kazeta dira, eta Espainiako beste bi. Beraz, zortzi udal liburutegietako erabiltzaileek ez dute BERRIA eta Gara irakurtzeko aukerarik.

Iruñeko Udalak prentsaren erosketa lau kazetetara mugatu ostean, erabaki zentsuratzailea zela argudiatuta, liburuzainek prentsa erosteari utzi zieten. Orreaga Urbiolak Iruñeko Yamaguchi udal liburutegian egiten du lan liburuzain gisa. Bi aste daramatzate eguneroko prentsarik erosi gabe. Jende andana etortzen zen lehen eguneko prentsa irakurtzera; orain, ordea, beste toki batzuetara joaten dira, hemen ez baitugu, dio Urbiolak. Joan den asteazkenaz geroztik, ez dago egunkaririk liburutegi horretan. Prentsarik gabeko lehen egunean, jendea harritu egiten zela dio Urbistondok, prentsa egoten zen tokira joan eta hutsik zegoela ikustean. Bazen jendea egunkarien auziaren berririk ez zuena, eta, ondorioz, asko harritu egin ziren. Hala ere, Urbiolaren aburuz, erabiltzaile ugari hainbat erabakik zuzenean eragiten ez dieten arte ez dira egoeraz gehiegi kezkatzen. Nahiz Yamaguchiko liburutegian egunkaririk ez egon, Liburutegi Nagusian badago, Nafarroako Gobernuak baitu han eskumena. Lehen Yamaguchira eguneroko prentsa irakurtzera joaten zirenak, orain Liburutegi Nagusira joaten dira, jakinarazi du liburutegiko langileak. Dena den, Yolanda Barcina Iruñeko alkateak, lau egunkari nagusiak udal liburutegietan izango zirela bermatu zuen joan den asteen. Nolanahi ere, atzo, behintzat, ez zegoen kazetarik zortzi udal liburutegietan.

Urbiolaren aburuz, liburuzain askok hilabete berriarekin batera, Barcinak agindutakoa betetzea espero zuten, baina ez da horrela izan. Dena den, ziur da, udalak liburutegien inguruan hartutako erabakiak, gainontzeko materialak hautatzeko bidea irekiko duela. Litekeena da zein egunkari erosi behar dugun agintzeaz gain, gainontzeko materialekin gauza bera egitea. Eskumen hori liburuzainei dagokiela jakinarazi du Asnabik eta ez administrazioari.

Iruñeko Udala ez zen lehena izan hainbat egunkari ez erosteko erabakia hartzen, Barañaingo udalak (Nafarroa) hala erabakita, bertako liburutegian ere lau egunkari bakarrik irakur baitaitezke. Asnabik salatu duenez, liburutegietan zein kazeta erosi behar den udalek erabakitzea despotismo hutsa da. Elkarteak Unescok liburutegien gainean emandako definizioa ekarri du gogora, Iruñeko eta Barañaingo udalen erabakia zentsuratzailea dela erakusteko. Nazioarteko erakundearen arabera, liburutegia informazio tokia da; hor, erabiltzaileek era guztietako ezagutza eta informazioa aurki dezakete askatasun osoz. Azken finean, Asnabiren aburuz, ideia eta pentsamendu askatasuna da liburutegietako funtsa, baina askatasun hori, oraingoz, ez dago bermatuta Barañaingo eta Iruñeko udal liburutegietan. Hala, egun hauetan Stop Zentsurari dioten kartelak jarri dituzte liburutegietako sarreretan, egoera salatu asmoz.